



ATA-KO HARANEA MIATUZ

Arantxa Urbiet

Beti dago gure samina, oinazea
gure poza, deliriuma
aditzera ematen diogun
nor bait ...
... irteera honetan parte hartu zuten
lagunei eskainia.

GIZAKIOK asekaizak omen
gara. Jaiotzen garenetik
gabiltza, hara eta hona,
aseko edo beteko gaituen altxor
prezatuaren bila. Badirudi,
mendizaleok hor goiko
magaletarantz jotzen dugula


*barrean dugun mamu goseti hau
pozik utzi asmoz. Oraingo honetan,
mamu honen meatxupean,
mendiko liburuetako zirrikituak
miazeari ekin diot paraje
ezezagunen bat aurkitu nahian.*

*Mendizale askoren irteeretan
urrutira joateko ohitura dugu (hala
Pirineoetara, nola Alpeetara e.a.),
nahiz gure gorputzak
errepideetako gorabeheretan
askozaz zigortuagoak gerta
mendietako aldapak igotzen baino.
Inguruetara begiratzea besterik ez
dago geure etxean ere txoko
politik eta erakargarriak
baditugula ohar gaitezen.*

*Horiatariko bat Atako bailara
suerta dakizueke, Aralarko txoko
batetan galtzen den bailara.*

*Kilometro gutxiren barruan
paraje ezberdinen erakusketa
dakarkigu Nafarroak, margolariren
batek bere inspirazioa bertan
isladatu. Bapatean, Pirineoen
atarian aurki gaitzke, Orhiren
begiradapean, Iratiko oihanean
txoriek bere hegada aske utziz, eta
zertxobait hegoalderantz joz,
Bardeetako lilurak bereganatuko
gaitu. Are gehiago, Baztango
eremueta hurbilduz gero,
mitologiako sorginen topo egin
eta honek Atako haranean ere*

«Euskal Herriko Mendiak»
gaiari buruzko sariketaren
lehen saria, euskaraz.



Udazkenean basoaren edertasunak bereganatzen gaitu



Argazkiak: Jon Villarreal

Atako haranean zehar



Erroldan menhir-a puskatuta. Men (harria) hir (luzea)

hornituriko bideari jarraitzen diogu, gorantz, norabidea aldatu gabe. Aisa egiten den bide honek Ata bailara gurutzatuko du, antzina, inguruko herritarren nahien arabera, helmuga jakin bat zuelarik: San Miguel in Excelsis, Altxueta (1.343 m.) mendiaren alboan dagoen eliza, alegia. Hortaz, bide zaharra dugu honako hau, zenbait bitxikeriaren lekuko.

Goizeko **11,10**. Bailararen garbigunera heltzean, eta bere erraietan sartu baino lehen, eskubitara Akier mendia, zelati, etsaiaren zain ezustean harrapatu dugu. Bere tontorra zuhaitzen artean ondo izkutatatu nahi du eta maiz arrazoi honegatik mendizale askok ez du honen berririk jasoko. Toki ezezagunen bila gabiltzanez, bertara hurbiltzea ezinbestekoa gertatzen zaigu. Tipi-tapa, aldapan gorantz, pagadian barna, biderik gabeko paradisu honetan, haranean utzitako zelai eroso datorkigu burura. Akierrek etsaiaren aurkako geziak bidaltzen ditu. Gero eta gorago, are eta neketsuago egiten da pausoa ematea. Azkenik, bidean zehar, bai zuhaitzetan, bai harkaitzetan margoturiko ikur txuri-horiek gailurrera garamatzate eta txartel kutxa den hegazkin herdoilduak, bere bakartasunean, agurtuko gaitu. **11,40** dira.

Gailurreko urritzen artetik, jakinminak lepoa luzaraziz, urrunean isladatzen dena doi-doi dakusagu: iparraldean autobia berriaren arrastoak Lekunberriko inguruetan, ekialdean Oderiz herria, mendebaldean Altxueta bere antena eta guzti, eta zeruaren zabaltasunean antzarra taldea lerraturik doa hegoalderanzko epeltasunaren altzora. Han, hegoaldean, Beriainen soslaia. Igotzeko darabilgun bide bera hartuko da jeitsierarako, ordu-erdi barru berriro ere beheladetan izanik, eta beste horrenbeste beharko dugu **Erroldan harria**-raino.

badela hainbat mito eta kondaira konta diezaguke.

Ata ez da hain ezaguna, gertu dituen ospe handiko gailurren itzalpean barreiatzen den Aralarko haranetako bat bait dugu. Emeki zaharkitu den Txindokik bere lepoa Gipuzkoako zeruan luzatzen duen bitartean, Nafarroara itzuliz, Malloako bizkarra-zehazki, Intzeko torrea- izanen da ibiltari eta mendizale anitzen mendirik gustokoena. Alabaina, gailur hauetatik aldenduz, hego-ekialdera zuzendu beharko gara karaitz artean gartsuki babesturiko lasaitasun apurraren bila.

MADOZ (765 m.) – ATAKO HARANA (950 m.) – AKIER (1.124 m.) – ERROLDAN HARRIA

Abiapuntutat Larraun eskualdeko Madoz herria hartuko dugu. Herri honetan aurkitzen da haranera bideratuko gaituen **atea**. Sakeletik giltza ateratzea besterik ez da, atea ireki eta bidean galtzeko aukera ezin hobea dugularik. Bai Bizkaiako, bai Gipuzkoako pinudietatik ihesen gatoz paraje hauetara. Urrunean somatzen ditugun pagadiak gure zain izanik, gibelean uzten dugu herriko eliza, pixka bat beherago, eskuinetara dagoen gurdi-bidea hartuz. Iturri emankorra ere bertan daukagu. Goizeko **10,30**.

Belardi koloretsuak, azken euri jasak direla medio, begi aurrean ditugu eta lizardiz

Behelainoaren artean galtzen da gure arbasoek hainbat eta hainbat trikuharri nahiz menhir sortu zuteneko garaia. Eraikuntza megalitiko hauek artzaien arteko elezarretan aipagai izateaz gain, leiendaren sareetan murgilduko dira. Esaterako, haran honetan Erroldan zeritzaion zaldun ospetsuaren mitoa ezaguna da. Orreagara joan aurretik, Aralarreko gainera igo eta eskue-tan harri puska hau hartuz bere etsaien aurka jaurtiki omen zuen Madozera. Saiakera honetan besoa bere jantzietan trabatu eta harria bide erdian erori zen, Atan alegia. Jaurtiketan bere indar guztiaz baliatu ei zen, horren testigantza menhirrean utzitako hatzamar arrastoak izanik.

Euskal Herrian aurkituriko lehen monolitoetakoa dugu eta ikerlarien indusketei esker berari dagozkion xehetasunak jaso ahal izan ditugu. Iturralde eta Suit ikerlaria ihardun zen zulatze lanetan. Lanari utzi zionean harriak hiru metrotako luzera zeukan eta oraindik ere lur-rean itsatsirik ziharzuen. Guzti hau 1895-an gertatu zen eta egun mota honetako eraikuntzen esangura argitzeke dago, mugarriak, oroitarriak, edo eta, hilarriak direnaren susmoa zabaldu den arren.

Aurreko txangoan ingurune hauetan ibiliak ginen, menhir-a bilatzen aritu ondoren, etsituta, etxera esku hutsik itzuliz. Aitzitik, oraingoan sortea gure alde zegoen. Edonola ere, astokirten batek buruturiko ekintza basatia gaitzestea dagokit: Erroldan zutik topatzea espero bagenuen ere, han dago, mendebalderantz doan bidearen ezkerretara

ra ... lur-rean zerraldo, hiltzorian, norbaiten ezpatakaldi bortitzaren ondorioz. Alboko pagoak ere aspaldi ezagutu zuen aizkoraren zatzada.

Atako pagadi aberatsak bertako zaldien egoitza bilakatu dira. Beren lasaitasuna apurtuko duen arrotzaren bat somatzean, pagadi itzaltsuetatik ziztu batetan irten eta zelaiean bazkatzen ari diren gainerantzeko zaldiengana hurbiltzen dira.

Gipuzkoatik 15 herriek osatzen dute "Aralar"ko Elkartasuna" modura izendaturiko elkarteak. Nafarroari dagokionez, 19 herri dira eta guztiek eskubide berdinak dituzte mendilerro honetako larre eta egurren hustiaketan, baina Larraun eskualdea hitzarmen honetatik at geldituko da, Aralarretik urrunago kokaturik dauden herriak elkarte-ko partaide diren bitartean: Lizarragabengoa, Etxarri, Arbizu, Arbazu ... Dorrau, Unanu, Lizarraga, hots, **Sakana** bailarako herriak, hor sartuko dugularik Irañeta, gure helmuga.

ERROLDAN HARRIA (955 m.) -
ATAKO ARRATEA (992 m.) - IRAÑETA (465 m.)

Udako sargorietan zaldiek ongi ikasia dute iturrirako bidea. Gu beraien urratsen atzetik goaz pistarik gabeko zelaiean barna. 20 minutu behar ditugu Atako iturrira iristeko. Honen goikaldean **Atako arrate** izenez ezaguturuko lepoa daukagu. Uharteko Arakil herrira daraman pista eskubitan utzi eta

basoaren iluntasunean murgilduko gara. Urrunean, Madalenaitz-ek irrifartxo bat eraikusten digu bere gailurrera urre-ratu gaitzen. Alabaina, oraingoan **Urruntzuren erreka**-ren bila galbitzanez, hurrengorako utzi beharko dugu.

Haserako elorriak atzean utzi ditugu. Pagadietako garbitasunaren atzetik, udazkeneko orbela galtzen dira gure oinak, eta eguzki izpiak zuhaitzeko hostoen artetik sartzen dira, isiltasunaren muga zeharkatu asmoz. Iparrorratzak ezartzen duen **hego-hegomendebalde** norabidea jarraituko dugu beti. Agiri herri hustura doan bide zahharrarekin topo egin arren, guk berantz joko dugu, jeisten garen einean zuhaitz mota ezberdinak agertuz (pagoa, haritza, elorria, espela ...). Basoa mendiaren hegale-taraino iristen da eta ingurune honek adieraziko digu ederki Gipuzkoa aldean ere zer nolako zugaztiak izan ziren noizbait, izan ere, egun mendi eta magal biluziak dauden toki berean, lehen harizti eta pagadi zabalak zeuden, gizakiak muturrak sartu arte. Adibide bat jartzearen, XVI-tik aurrera hemen bilduriko egurra ontzigitzarako zuzenduko zen eta XIX-XX mendeetan emaniko gaisotasunek (**oidium** edo gaitz-zuria haritzaren kasuan, eta **tinta** gaztainari zegokionean) etengabeko hondamendia areagotu zuten.

Bi ordu ondoren, basoaren behekaldeko zuloan, Urruntzuren Errekaren **iturburua** kausitu dugu. Hemengo urak Arakilgo ibai-

Madalenaitz mendiak bertara hurbiltzeko zailtasunak ipini ditu



Urruntzurre erreka, Betelu baserriaren alboan.



ra doaz, bere ibildidean Sakana haranako lurra ureztatuz. Kantauri eta Mediterraneo itsasoetako uren ixur-muga dugu Aralar, eta Arakilgo urek Altsasuko inguruetan Mediterraneoarako bidea hartuko dute.


Errekaren ezkeraldetik Betelu baserria hurbiltzen ari gara, Irañeta herria gertu izanik. Udazkeneko eguzki xumeak bere bidaian muino eta magalak berotu eta ederitu dizkigu. Gu, laster, neguaren zain, etxeko sutondoaren goxotasunera urreratuko gara eta lozorrotik ateratzeko mendiko liburueta-ko zirrikituetan galduko ditut orduak eta orduak. Aldiz, hegaztiekin egunak eta egunak igaroko dituzte hegoalderako bidean ... ■

Haizearen fereka mugatik mugara eguzkiaren izpiak uxatuz. Hostoaren irristada zuhaitzak biluziz ... Txoria! Zure laguna tiroz hil dute. Ihes egin! Gordeleku apropos bat aurki ezazu! Babes zaitetz Atako pagadietan.



Urruntzurre errekatik gertu. Arbuia garria da zenbaiten naturarekiko errespetu eza.

Argazkiak: Arantxa Urbietxa



OHARRAK

Erabilitako bibliografia

- "Cien cumbres y rincones de la montaña vasca". Peña Santiago, ELKAR, 1990
- "Mendiak". ETOR, 1983.
- "El mundo en la mente popular vasca". J.M. Barandiaran.

Mapa

— Aralar. Imanol Goikoetxea. 1/25.000 eskala.

Ibilbidea

Udaberrian edo udazkenean egitea aholkatzen da, baldin eta basoetako edertasuna dastatu nahi bada. Bestalde, Atako harana elurturta dagoenean, eskiatzeko toki aproposa dugu.

Kontuz ibili behar da Atako arratetik Irañetako iturbururainoko ibilbidean, ez dago biderik, ez eta ere markarik.

Iraupena

6 ordu. 1992-ko urriaren 11-ean burutua.

Partaideak

JON, JUANJO, JONE ETA ARANTXA.